

BOTERE KONSTITUZIOGILEA LATINOAMERIKAR KONSTITUZIONALISMO BERRIAN. VENEZUELA, BOLIVIA ETA EKUADORREKO AZKEN PROZESU KONSTITUZIOGILEEN ANALISI KONPARATU BAT

Tesiaren egilea: Eneko Compains Silva

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia

Tesi-zuzendaria: Juan Inazio Ugartemendia Ezeizabarrena

Tesiaren laburpena:

Duela ez gehiegira arte, botere konstituziogileaz esan zitekeen guztia esana balego bezala jokatu izan du doktrinaren parte zabal batek, eta hori dela medio, arreta eskasa eskaini zaio gaiari ohiko zirkulu akademikoetan. Alta, denbora batetik ona, bizi dugun testuinguru aldakorra dela medio (ongizate-estatuaren krisia, sezesio- edota integrazio-prozesuak, gobernu-sistema zaharren agortzea eta beste batzuk aipa litezke hemen) gaiak garrantzia berreskuratu du eta hainbat autorek ipini dute arreta botere honen analisisan. Tesi-lan hau testuinguru horretan kokatzen da.

Lanak bi atal nagusi ditu. Lehenbizikoan (bi kapituluz osatua) botere konstituziogilearen gaineko analisi historiko eta doktrinala egiten da, marko teoriko sendo bat eraikitzeko asmoz. Horrela, bada, botere konstituziogilearen jatorri iraultzaile eta demokratikoen azterketa egiten da lehen kapituluan, Ingalaterra, Ipar Amerika eta Frantziako Iraultzek botere konstituziogilearen teoriari egindako ekarpenean arreta jarritz. Eta bigarren kapituluan, berriz, botere konstituziogilearen definizioa, ezaugarriak eta aktibazio-moduak zeintzuk diren ezagutzeko eta, zehazki, botere konstituziogilearen eta erreforma-boterearen mugak non dauden finkatzeko analisi doktrinala egiten da, bateko eta besteko iritziak erakutsiz eta tesiaren autorearen posizioa finkatuz.

Behin marko teorikoa finkatu delarik, latinoamerikar konstituzionalismo berriaren paradigma nagusi diren hiru prozesu konstituziogileren analisi konparatua egiten da tesiaren bigarren atalean. Atal honek hiru kapitulu ditu: Venezuela (1999-2000), Bolivia (2006-2009) eta Ekuadorreko (2007-2008) prozesu konstituziogileei dagozkienak, hurrenez hurren. Ikusiko den bezala, Venezuelan eta Ekuadorren, konstituzio berriak egiteko prozesuetan konstituzio-erreforma prozedurak alboratu ziren hasieratik, eta, besterik gabe, zuzenean, herri-galdeketen bidez, jatorrizko botere konstituziogilea aktibatu egin zen. Zilegi zen hori egitea? Eta botere konstituziogilearen teoriaren arabera, baliozkoa? Nola egin eta justifikatu zuten? Galdera horiek eta beste batzuk erantzuten dira hiru kapituluotan zehar, amaieran, tesi-lanetan ohikoa den moduan, ondorioak azaltzen direlarik.